



Zumaia Udala

euskara  
txanpan



## Julene Azpeitia 33. ipuin lehiaketa

Literatur sorkuntza bultzatzeko asmoz, "Julene Azpeitia 33. ipuin lehiaketa" antolatuta du Zumaia Udala. Lehiaketa honetara aurkeztutako idazlanek baldintza hauek bete beharko dituzte:

**1.-** Euskaraz idatzita egon, originala izan eta argitaragabea. Ezingo du parte hartu beste lehiaketaren batean saririk jaso eta/edo literatur sormenerako laguntzaren bat jaso duen idazlanak. Ezin dira aurkeztu jatorriz beste hizkuntza batean idatziak izan eta lehiaketarako euskaratu direnak.

**2.-** Gaia librea izango da, eta ipuinak gutxienez 6 orrialde eduki beharko ditu eta gehienez 15, lerroarte bikoitzarekin idatziak, orriaren alde batetik.

**3.-** Idazlanak, onartua izateko, izenburua bakarrik eramango du agerian eta idazlearen izena ezin izango da inon aipatu. Idazlanarekin batera, gutun-azal itxi bat bidali beharko da, kanpoaldean idazlanaren izenburua jarrita, eta barrualdean, berriz, egilearen izen-abizenak, telefonoa, helbide elektronikoa eta NAN agiriaren fotokopia.

**4.-** Aukera dago lanak posta elektronikoz bidaltzeko ere, [euskara@zumaia.eus](mailto:euskara@zumaia.eus) helbidera. Kasu horretan ere egilearen izen-abizenak, telefonoa, helbide elektronikoa eta NAN agiriaren fotokopia bidali beharko dira lanarekin batera. Epaimahaiko idazkariak izango du lan irabazleak hautatu arte datuok gordetze-ko ardura.

**5.-** Zumaia Udala izendatutako epaimahaiak ebatziko du lehiaketa. Epaimahaiko idazkaria Zumaia Udaleko euskara teknikaria izango da, eta ez du botorik edukiko.

**6.-** Sariak eman gabe utzi ahal izango dira, eta finkatutako diru kopuruak zatietan izango dira.

**7.-** Lanak aurkezteko epea **irailaren 30ean** amaituko da. Sari banaketa garaiz iragarriko da.

**8.-** Zumaia Udala beretzat gordetzen du saritutako lanak argitaratzeko eskubidea, baina argitaratzekotan, epaimahaiak ebazpena eman eta urtebeteko epearen barruan argitaratu behar du, bai bere kabuz, bai beste batzuen bidez. Lehenengo argitalpenaren ustiapen eskubideak Zumaia Udalarenak izango dira.

**9.-** Epaimahaiaren ebazpena itzulezina izango da, eta lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzen direla esan nahi du.

**10.-** Idazle bakoitzak ezin izango du sari bat baino gehiago jaso.

**11.-** Sariak: 3 sari emango dira:

Lehen saria: 3.000 €

Bigarren saria: 1.500 €

Zumaia onenaren saria: 1.000 €

Sarien diru kopuruek indarrean dagoen legediak ezarritako atxikipena izango dute.

**12.-** Idazlanak helbide honetara bidali beharko dira gutun azalean **Julene Azpeitia 33. ipuin lehiaketarako** dela adierazita:

Zumaia Udala. Euskara Zerbitzua.  
Foruen plaza 1 - 20750 Zumaia

Zumaian, 2020ko uztailean